

**LANKIDETZARAKO ESPARRU HITZARMENA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA KONTSUMOBIDE-KONTSUMORAKO EUSKAL INSTITUTUAREN ARTEKOA**

**BILDURIK**

Alde batetik, Guillermo Quindós Andrés jauna, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea, unibertsitate honen izenean eta ordezkartzan, aurrerantzean UPV/EHU, IFK Q-4800018-B eta helbidea Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioan (Bizkaia) duena, errektoreak UPV/EHUren eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta 2021ko urtarrilaren 28ekoa emandako erabakiak xedatzen duenarekin bat (2021ko otsailaren 12ko 31 zbkiko EHAA).

Beste aldetik, Javier Hurtado Domínguez jauna, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, aurrerantzean Kontsumobide, IFK Q0100569C eta gizarte egoitza Santiago etorbideko 11.ean duena, Vitoria/Gasteiz 01002, Euskal Autonomi Erkidegoaren administrazioaren izenean eta ordezkari, Kontsumobide kontsumoaren euskal institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 legearen 9. eta 14. artikuluetan eta Kontsumobide kontsumoaren euskal institutua egituratzeko eta antolatzekeko uztailaren 12ko 159/2011 dekretuaren 3.4 artikuluan esleitzen zaizkion ahalmenak baliatuta.

Bi aldeek hitzarmen hau betetzeko behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta honako hau

**ADIERAZI DUTE**

**LEHENENGOA.** - UPV/EHU zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa eta kultur zein unibertsitate hedakuntza. UPV/EHUK bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. Balioak zabaltzeko eta jakintza berresteko erakundea denez gero, gizarte eta kultura desorekak murriztera bideratutako unibertsitate hedapenak egikartzeko eta politika, kultur zein gizarte arloan gehiago parte hartzeko baldintzak sortzeko erantzukizun berezia dauka.

**BIGARRENA.** - UPV/EHUren helburuetako bat kudeaketa arduratsu, jasangarri eta eraginkorraren garrantziaz jabetutako profesionalak goi-mailako irakaskuntzan prestatzea da, eta, horretarako, jakintza konpromiso etiko eta gizarte erantzukizuneko

konpromiso garbi batekin osatzea, herritarren belaunaldi berrien prestakuntzarako funtsezko agentea eta iritzia sortzeko erreferentzia den heinean.<sup>1</sup>

**HIRUGARRENA.** - Kontsumobide erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailari atxikita, helburuak euskal gobernuak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsan eta babesean izan beharreko politikak definitu, planifikatu, bultzatu eta burutzea dituen. Uztailaren 12ko 159/2011 dekretuak arautzen du bere egitura eta antolaketa.

**LAUGARRENA.** - Alde biek interesa dute lankidetzaren esparru bat ezartzeko, erakunde biek helburuak betetzen lagunduko duten jarduerak eta lanak egiteko.

Esandako guztiagatik, alde biek honako hau

### **ADOSTU DUTE**

Oinarrizko lankidetzaren hitzarmen hau formalizatzea, honako hauen arabera:

### **KLAUSULAK**

#### **LEHENENGOA. - HELBURUA**

Hitzarmen honen helburua da lankidetzaren esparru bat ezartzea UPV/EHUk eta Kontsumobidek elkarrekin hainbat ekimen aurrera ateratzeko gizarte erantzukizunaren, iraunkortasunaren, jakintzaren transferentziaren eta balioekiko sentsibilizazioa eta heziketaren arloan.

#### **BIGARRENA. - JARDUTEKO EREMUA**

Bi aldeen arteko oinarrizko lankidetzaren hitzarmenaren lehen klausulan deskribatutako ekimenak garatzera mugatuko da. Zehazki:

1. Kontsumo programa bateratuak sustatu eta burutzea.
2. Unibertsitate curriculumean ardurazko kontsumoaren gaia gehitzea sustatuko luketen ekintzak egitea.
3. UPV/EHUko ikasleen praktikak Kontsumobiden egitea, hala erabakiko balitz, hezkuntza lankidetzarako sinatu beharreko akordioa sinatu ostean.
4. Unibertsitateko kideentzako prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak egitea ardurazko kontsumoaren inguruan.
5. Bi erakundearen artean interes komuneko gaiei buruzko jardunaldiak, mintegiak eta biltzarrak antolatzea.

---

<sup>1</sup> UPV/EHUren PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2025

6. Elkarri aholku ematea ikasketak planifikatu, antolatu eta gauzatzeko, alde bientzat interesgarriak diren gaien inguruan.
7. Aholkularitza Euskal Autonomi Erkidegoan kontsumo zuzenbidea arauz gara dadin.
8. Kontsumobideko pertsonala, kontsumitzaileak informatzeko udal bulegoetako eta bestelako erakundeetako pertsonala prestatzea, Euskal Autonomi Erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen defentsa helburu dutelakoan.
9. Euskarri zientifiko eta akademikoa, Kontsumobideri interesgarri zaizkion gaurkotasun gaien inguruan txostenak eginda.
10. Aldeek ados jarrita, hitzarmen honen helburuak lortzen lagunduko duten bestelako jarduerak.

#### **HIRUGARRENA. - LANKIDETZA GARATZEA**

Hitzarmen honen babesean egiten den jarduera eta proiektu bakoitzak aparteko tramitazioa izango du, kasu bakoitzari dagozkion arauari jarraiki. Tramitazioan jaso beharko dira lankidetzaren nondik norakoaren xehetasunak, eta aldearen konpromisoak, hala ekonomikoak (horrelakorik egonez gero) nola bestelakoak.

Hitzarmen hau garatzeko egiten diren akordio, kontratu eta bestelako dokumentuetan, bakoitzari dagozkion xehetasunez gainera, honako hauek ere jaso beharko dira:

- a) Elkarlanean egindako ikerketen emaitzen jabea nor izango den, emaitzak nola ustiatuko diren, eta zelan arautuko den parte hartzaileen konfidentzialtasuna.
- b) Aldeek ikerketarako azpiegitura berak erabiliko dituzten eta, baiezkoan, zer baldintzatan.

#### **LAUGARRENA. - IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA**

Hitzarmen hau mantentzeko, garatzeko eta kontrolatzeko, alde batek besteari emango dizkion ordezkarien eta harremanetarako pertsonen datuak, xede horretarako tratamenduaren arduradun gisa hartuko dut alde jasotzaileak.

Alderdiek interesdun horien datu pertsonalak jakinarazi ahal izango dizkiete agintari eta erakunde eskudunei, legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa den neurrian, bai eta haien hornitzaileei ere, baldin eta zerbitzugintzaren esparruan tratamendu eragile gisa jarduten badute (aholkulari juridikoak eta kontulariak, auditoreak, dokumentazioa suntsitzeko zerbitzuen hornitzaileak eta informazio teknologien zerbitzuen hornitzaileak barne).

Alderdiek interesdunen datuak gordeko dituzte beren harremana amaitu arte, eta, harremana amaitu ondoren, interesdunen datu pertsonalak garrantzitsuak badira

alderdi batek bestearen aurrean duen erantzukizunerako, datu horiek behar bezala blokeatuta gordeko dituzte, tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak eskatzeko, haien preskripzio epearen barruan.

Gainerakoan, alderdiek, hitzarmen honen esparruan, izaera pertsonaleko datuen babesa arautzen duen araudiak ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideak Bermatzeari buruzkoa

### **BOSGARRENA. - JARRAIPEN TALDEA**

Hitzarmen honetan ezarritakoa zuzen garatzen dela ziurtatzeko, eta bi aldeak ados jarrita, jarraipen talde bat sortuko da. Batzordeak bi kide izango ditu, erakunde bakoitzeko bat eta UPV/EHUren ordezkaria Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea edo horrek eskuordetutako pertsona izango da. Kontsumobideren ordezkaria zuzendari nagusia edo honek eskuordetutako pertsona izango da.

Talde hori arduratuko da hitzarmen hau interpretatzeaz, hitzarmenaren babesean egindako jarduerak programatzeaz, jarraitzeaz eta baloratzeaz, baita hitzarmena garatzean sor daitezkeen alderdi guztien gainean erabakitzeaz ere. Zehatz-mehatz, honako eginkizun hauek izango ditu taldeak:

- a) Hitzarmen honetan jasotako ekintzak bete daitezen bultzatu.
- b) Aldeek hala eskatuta, hitzarmena garatzeko ekintzak definitu eta egoki jotzen dituen behar adina batzorde tekniko sortu.
- c) Hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean planteatzen daitezkeen zalantzak eta gorabeherak argitu, eta horien gaineko erabakiak hartu.
- d) Hartutako konpromisoen jarraipena eta azken ebaluazioa egin.
- e) Hitzarmena garatzeko egindako jarduerak dokumentatu.

Bi aldeetako edozeinek biltzeko eskaera egin ahal izango du hitzarmen hau gauzatu eta horren jarraipena egiteko, gorabeherak eta arazoak konpontzeko, eta jarduerak programatu edo jardueren balorazioa egiteko. Bilera horien akta egingo da, eta idatziz jasoko dira bertan bileran hartutako erabakiak.

Lankidetzaren hitzarmen honen babesean egiten diren hitzarmen espezifikoetan, hitzarmen bakoitzeko jarduerari egingo zaien jarraipena deskribatuko da.

### **SEIGARRENA. - LANKIDETZAREN ZABALKUNDEA**

Bi erakundeek beren gain hartuko dute hitzarmen honetatik sortutako lankidetzaren nabarmentzeko konpromisoa, baita hitzarmen honi lotuta egin litezkeen hitzarmen espezifikoetatik sortutako lankidetzaren nabarmentzeko ere.

Xede horretarako, oinarrizko hitzarmen honen ondorioz sortutako ezagutzari buruzko argitalpenetan edo hura hedatzeko nahiz ustiatzeko ekintza guztietan berariaz jasota utzi beharko da alderdien arteko lankidetzeta, eta bi erakundeen irudi korporatiboaren ikusgarritasuna bermatu beharko da, antzeko adierazgarritasun ezaugarriak edo tamaina erabiliz, bidezkoak diren beste batzuei kalterik egin gabe.

#### **ZAZPIGARRENA. - INDARRALDIA**

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta lau (4) urtetako iraupena izango du, sinatzen den egunetik hasita.

Epe hori amaitu aurretik eta edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aukera izango dute haren luzapena aho batez adosteko, lau urtez gehien jota edo haren azkentzera arte.

#### **ZORTZIGARRENA. - ALDATZEA.**

Alde batek eskatuz gero, hitzarmen hau aldatu ahal izango da, biak ados badaude. Hitzarmenean egindako aldaketek eragina izan dezaten, idatziz jaso beharko dira eta behin bi aldeek sinatutakoan, hitzarmenari erantsiko zaizkio.

#### **BEDERATZIGARRENA. - HITZARMENA BUKATZEA ETA HORREN ONDORIOAK**

Esparru Hitzarmen hau azkentzen denean, indarrean jarraituko dute haren babesean izenpetutako akordio eta kontratuek, amaitu arte.

Bi aldeek irakurri dute hitzarmena, eta edukiarekin ados egonik, bi ale sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta egunean.

Universidad del País Vasco / Euskal  
Herriko Unibertsitatearen izenean

Kontsumobideren izenean

Guillermo Quindós Andrés jauna

Javier Hurtado Domínguez jauna